Zerbitzuak

ALDAGELAK ETA DUTXAK: Kontxako hondartzako kabinak doan erabil daitezke. 17:45ean itxiko dira.

ARROPA: Aurten helmugan egingo da arropa-bilketa (Easo plaza). Ordutegia 12:00 - 15:30. Ez da bidaia-maletarik edo bestelako gauza handirik onartuko.

ARGAZKIAK: Lasterketan zehar atleten argazkiak egingo ditugu, gure webgunean jartzeko. Horietako bat nahi izanez gero, webgunetik doan deskargatu ahal izango da.

APARKALEKUA Kotxean doazenentzat parking bat dago Easo plazan bertan (helmuga kokatua egongo den lekuan). Topoko geltokiaren aurrean du sarrera.

TOPOA (EuskoTren): Garraiobide honen bitartez joan nahi duten guztiei gogorarazten diegu geltokia dutela Easo plazan bertan (helmuga kokatua egongo den lekuan). Era berean, Antiguan ere badute geltoki bat, eta handik beroketak eginez joan daitezke Benta-Berriko IRTEERAra.